

4. - OLARIZUKO ETXEALDEA ETA ERROMERIA

Olarizuko etxaldea



1727an sortu zen, Vitoria-Gasteizko Udalak hiriko harategiak hornitzen zituzten abereak jasotzeko korta bat egitea erabaki zuenean herri aziendek bazkatzen zuten zelaietan. Eraikin berri hori egin aurretik beste etxe txiki bat zegoen abereak biltzeko eta abeltzainek bertan bitzeko, baina sute batek hondatu zuen.

Etxea eraikitzeko lanak Domingo Berrikanori eta Nicolas Izarrari esleitu zizkioten. Lehenak hargin lanak egin zituen 31.256 errearen truke, eta bigarrenak arotz lanak 20.936 errearen truke.

Biak ere gasteiztarrak ziren. Etxe berriak kortak, lastategiak eta abeltzainarentzako etxebizitza zituen. Etxea ez zutenean jada bere jatorriko erabilerarako erabiltzen, biltegitzat erabili zuten hainbat hamarkadatan. Denboraren eraginez etxea hondamen egoeran geratu zen. 1987. urtean Vitoria-Gasteizko Udalak etxea konpontzeko lanak hasi zituen. 1995ean, Olarizuko etxaldea Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren egoitza bihurtu zen.

Olarizuko
erromeria 1900



Olarizuk jai giroko izaera herrikoia dakar gogora. Izan ere, **erromeria herrikoia** egiten da bertan irailean ospatzen den Ama Birjinaren egunaren hurrengo astelehenean. Jai egunean ohitura bihurtu da jende asko Olarizuko gainera igotzea. Erromeria XIX. mendearen erdialdeko dokumentuetan azaldu da lehen aldiz jasota.

Egun horretan bertan, erromeria izan baino lehen, udalbatza udalerriko zedarriak ikustera joaten da, alkatea buru dela. Jarduera hau jada 1590. urtean azaltzen da jasota, nahiz eta ospakizun eguna askotan aldatu den abuztua eta urria bitartean. 1847. urtetik aurrera, ordea, gaur egungo data ezarri zen. 1966. urtea arte ibilbidea zaldiz egiten zen. Hortik aurrera ohitura hori aldatu egin zuten zirkulazioak zaldizko txangoari sortzen zikion arriskuak eraginda. Erromeria amaitzen zenean, udalbatzak hiriarri itzulia ematen zion zaldiz. (Iturria: Vitoria-Gasteizko Udalaren web-orria)